

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak automozioaren sektoreko enpresen arteko baterako jarduerak sustatu ditu

Topaketen programa batek logistikan, energiaren eraginkortasunean eta "lean production" delakoan esperientziak eta jardun onak partekatzeko aukera emango du

Martes, 20 de septiembre de 2011

Nafarroako Gobernuak sustaturiko Nafarroako Automozioaren Klusterrak eta [Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroa \(CEIN\)](#) sozietate publikoak laneko [topaketa programa](#) bat antolatu dute logistikaren, energia aurreztearen eta eraginkortasunaren eta "[lean production](#)" delakoaren alorretan elkarlanean jarduerak abiarazi nahi dituzten automozioaren sektoreko enpresentzat.



Volkswagen autoa Nafarroako Automozioaren Berrikuntza Teknologikoaren Zentroko (CITEAN) laborategi batean

Topaketa horiei esker, enpresek esperientziak eta jardun onak partekatu ahal izango dituzte epe laburrera aurreztea ahalbidetzen dieten alor horietan hobetzeko ekintzak identifikatu eta diseinatzeko.

Saioak asteazken honetan, irailak 21, hasiko dira. Lehen laneko topaketa [barruko logistika eraginkorra](#)ri buruzko proiektuarena da, eta horren asmoa guztien helburuak identifikatu eta alor horretan aurrera egin nahi duten enpresentzako laneko plan zehatz bat egitea da, aholkulari batek lagunduta.

Egun berean, Enpresen arteko Lankidetzeta, etorkizuneko erronka (Nafarroako Aholkularitza Enpresen Elkartek antolatuta) gaiaren inguruko jardunaldiaren barruan, [Nafarroako automozioaren sektoreko hainbat enpresa erosketen zentral batera atxikitzearen](#) esperientzia azalduko dute. Hori egitearen arrazoia hornidura eta zerbitzu ez estrategikoen prezioan funtsezko aurrezpenak lortzea da.

Horiez gain, sektoreko enpresetara bisita bana programatu da. Alde batetik, eta Lean production delakoaren jarduerak sustatzeko ekintzen barruan, irailaren 22an, [Schneider Electric España enpresa bisitatuko dute](#). Han, arreta berezia jarriko zaie Lean kudeaketaren eta Kamishibai esperientziaren, pertsonen eta aintzatespenaren alderdiei. Irailaren 29an [KYBSE enpresak bere prozesu logistikoen berri emango du](#). Gainera,

"Prestakuntza eta ezagutza logistikoa" proiektuaren laneko bilera bat egingo dute. Proiektuaren helburua logistikaren alorrean automozioaren sektoreko enpresen artean jardun onak eta transferentzia-jarduerak identifikatzea eta abian jartzea da.

Urriaren 7an egingo den topaketaren gaia [Energia aurreztearen eta eraginkortasunaren hobekuntzak](#) izango da, eta, bertan, Volkswagen, CENER eta EN 21 enpresek aurreztearekin eta eraginkortasunarekin lorturiko haien esperientziak eta proiektuak aurkeztuko dituzte.

Azkenik, [Lean tresnak aplikatzea](#) izeneko tailerrean (urriaren 19an) aurrez alor horretan esperientziarik ez duten enpresei Lean tresna nagusiak nola erabili erakutsiko zaie. Horrez gain, tailerrean parte hartzen dutenek tresna horietan oinarritutako hobetzeko eta emankortasunerako jarduerak bultzatzeko beharizan espezifikoak proposatu ahal izango dituzte.

Nafarroako Automozioaren Klusterrak sektoreko eragileak elkartzen ditu (enpresak, eragile sozialak, zentro teknologikoak eta unibertsitateak) modu koordinatuan lan egiteko sektoreko interes eta erronka estrategikoei begira.